

## Nafarroak Hezeguneen Nazioarteko Eguna 2014 Baztanen ospatuko du Arxuriko Zohikaztegira bisita batekin. Arxuri oso toki berezia da balio ekologiko eta historiko handiak dituelakoz. Horregatik LIFE TREMEDAL proiektuan sartzen da.

Urtero, otsailan Hezeguneen Nazioarteko Eguna da, horixe erabaki baitzen Hezeguneei buruzko Konbentzioan, 1971n (RAMSAR). 1997tik hona, urtero, Europar Batasuneko erakunde ofizialak, gobernuz kanpoko erakundeak eta herritar taldeak aukera horretaz baliatu dira hezeguneei zer balio dauzkaten eta zer onura dakartzaten erakusteko eta jendea, oro har, are gehiago sentsibilizatzeko. Hartara, jarduerak eta ekitaldiak antolatzen dituzte.

Hezeguneen Nazioarteko Eguna ospatze aldera, Nafarroako Gobernuak "**Nafarroako Hezeguneei ezagutzea**" izeneko programa abiarazi zuen orain dela hamar urte baino gehiago. Aurten, **Arxuriko Zohikaztegia** (Baztan) bisitatzea proposatu da.

**Arxuri** toki berezia da eta balio ekologiko eta historiko handiak ditu: ekologikoen artean esan behar da habitat mota aunitz dituela eta oso oparoa dela landare eta animalia espezieetan; haietako batzuek Europa mailako babesgabea dute, eta beste batzuk oso bakanak dira. Balio historikoen artean aipatu behar da inguru horretako landaretzari, klimari eta paisaiari buruzko argibidea gorderik daukela orain dela 5.000 urtetik hona. Usteldu gabeko gai organikoen hondarrekin batera, inguruko landareetatik heldu eta metatzen den polena aztertzeak ematen du hori jakiteko aukera.



*Drosera rotundifolia*, zohikaztegiatan azaltzen den landare haragijalea.



Proyecto  
**LIFE · TREMEDAL**  
*Humedales continentales del Norte de la Península Ibérica:  
Gestión y restauración de turberas y marismas fitoflebrosos*

Hezegune hori, gainera, **LIFE TREMEDAL** deritzon **Europako proiektuaren** baitan ari dira aztertzen eta haren jarraipena egiten. Proiektuak, zehazki, *batasunaren intereseko habitat eta espezie mota batzuen kontserbazio egoera hobetu eta haien biziraupena bermatu nahi du, betiere Iberiar Penintsularen iparraldeko hezegune kontinentalei lotutakoak.*



Nafarroako Gobernuak Hezeguneen Nazioarteko Eguna baliatu nahi du gizarteari Europako proiektu berri hau aurkezteko, proiektuak berariaz aztertu eta hobetuko baitu Nafarroako eremu atlantikoko zohikaztegien eta haiei lotutako habitaten kontserbazio egoera.



## **Egitaraua (Martxoak 16, igandea): Bisita Arxuriko Zohikaztegirara**

- 09:30 Iruñatik autobuses abiatzea (Tres Reyes Hotela)
- 10:30 Elizondoko Plazan (autobusa hartzeko)
- 11:00 Zugarramurdira iristea (hamaiketako)
- 11:20 Bisita gidatua Arxuriko Zohikaztegia ikusteko
- 13:30 LIFE TREMEDAL aurkezteko ekitaldia (proiektuaren aurrerapenak eta Baztango zohikaztegien deskribapena)
- 14:00 Denbora libre bazkaltzeko
- 15:45 Zugarramurdik abiatzea (Elizondon geratzeko edo Belateraino jarraitzeko)
- 16:50 Bisita gidatua Belateko zohikaztegia ikusteko
- 17:30 Elizondora edo Iruñera itzultzea

### **Izen-ematea eta argibideak:**

639 821 758 / 948 58 12 79 telefonoetan, 9:00etatik 14:00etara

Eman izena martxoaren 13a baino lehen

